



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERARI **BURUZKO 2026KO ABUZTUAREN 14KO TXOSTENA**

Gaur egungo egoera Arabako Errioxan

Klimatologiari dagokionez, dortsal antiziklonikoek eta presio subtropikal altuek bere horretan jarraitzen dute, eta horrek ekaitz gogorrak iristea eta udan izaten ari garen joera aldatzea eragozten du.

Uztaileko azken astean, beroa, giro lehorra eta tenperatura maximoak izaten jarraitu genuen, eta, apur bat jaitsi ziren arren, astearen amaieran gora egin zuten berriz ere. Horrela, beste errekor bat hautsi dugu 1970. urteaz geroako serie historikoan, datuak ditugunetik uztailik beroena izan baita, errekorra zuen 2006koa baino are beroagoa. Prezipitazioak urriak izan dira, edo ez da batere izan, uztailaren 25eko ekaitza alde batera utzita. Ekaitz horrek ur kopuru handiak utzi zituen eskualdeko zenbait tokitan, hala nola 28 mm Paganosen eta 10 mm Moreda Araban. Egun bakarrean izandako kopuru horiek ohiko balioak dira eskualdean uztailean eta abuztuan, plubiometria oso irregularra duten hilabeteak baitira. Beste errekor bat ere hautsi zen lurraldean, erregistratutako uztailen artean lehorrenetako bat izan baita aurtengoa.

Abuztuko lehen hamabostaldian, tenperaturak altuak izan dira, baita garai honetarako ere, eta ez da prezipitaziorik izan, hilaren 8an euri apur bat bota zuen arren oso gutxi izan baitzen. Aurreikuspenen arabera, tenperaturak jaitsi egingo dira, baina ez da prezipitaziorik izango denik aurreikusten.

Eguraldi lehorraren eta prezipitaziorik ezaren ondoriozko albiste ona da mahastien osasun egoera oso ona dela, ez baitago gaixotasun fungikorik. Geroago, heldu ahala fruituek azukre gehiago dutenean, botrytisari adi egon beharko da.

Egoera fenologikoari dagokionez, esan daiteke gehien-gehienak M2 egoeran edo kolore aldaketa betean daudela, heltzeko (N) bidean oso aurreratuta. Aurrerapena nabarmena da, beste urte batzuekin alderatuta, eta, horren ondorioz, aurreikuspen batzuen arabera, baliteke mahats bilketa iraileko lehen hamabostaldian hastea.

Ale eta mordoan arteko aldeak oso nabarmenak dira ureztatzen diren eta ureztatzen ez diren eremuen artean, eta, zenbait iturriren arabera, beste urte batzuetan baino txikiagoak dira fruituak, oro har.

Egindako zenbait analisiren arabera, fruituak azukrea azkar metatzen ari dira beroa dela eta; zenbait kasutan, ohikoa baino azkarrago, eta, beraz, kasu batzuetan, espero daiteke epe laburrean iristea maila egokietara.

Arabako Txakolinaren egungo egoera

Arabako Txakolinaren eremuan, Arabako Errioxan bezala, tenperaturak ere altuak izan dira, baina gauez jaitsi egin dira, tenperatura anplitudea dela eta, eta horrek mahastiak errazago garatzea eragin du. Uztailaren 25eko eta abuztuaren 8ko prezipitazioak urriak izan ziren mahastien beharrak asetzeko. Egoera kezkagarria izaten hasi da. Tenperatura apur bat freskoagoek arindu egin dute anduien estres termikoa; hala ere, prezipitazio gehiago behar dute.

Mahastien osasun egoera ona da oraindik, eta, eremuaren ezaugarriak direla eta izurri fungikoen gaineko zaintzari eusten bazaio ere, ez dago gorabehera nabarmenik.

Fenologikoki, bi aste inguru aurreratu dira, eta, oro har, kolore aldaketa hasieran (M1) eta kolore aldaketa betera bidean (M2) daude.

Kanpainarako aurreikuspen onei eusten zaie, eta, oro har, oso osasun ona dute mahastiek, nahiz eta euri eskasiaren ondorioz ekoizpena txikiagoa izango den.

Abuztuaren erdialdeko azken txosten honekin amaiera ematen diogu 2026ko mahastizaintza kanpainaren jarraipenari. Abuztuaren amaieratik aurrera, urtero bezala, mahatsaren HELTZEAREN jarraipena egingo da bi eremuetan.

Laguardia, 2026ko abuztuaren 14a

MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA

NEKAZARITZA SAILA